



NEKAZARITZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA

## JARDUERA NAGUSIAK

Landa Garapeneko Plana  
Mendiko nekazaritza  
Basoberritzea  
Ateratze bideak hobetzea  
Hondakinen Plana  
Bizikleta Bideen Sarea

## LANDA GARAPEN ERAMANGARRIRAKO PLANA

2000ko urriaren 5ean Europako Batzordearen erabakiz onartutako *2000/2006 Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Eramangarriko Planean* jasotzen ziren neurriak garatu dira Gipuzkoako nekazaritza ustiapenei laguntzeko eta landa alderdiak landatu eta egokitzeko 2000ko irailaren 5eko 79/2000 Foru Dekretuaren bitartez (2000ko irailaren 25eko GAO, 182. zk.). Foru Dekretu hori, ondoren, 2002ko irailaren 17ko 50/2002 Foru Dekretuak aldatu zuen (2002ko irailaren 27ko GAO, 183. zk.), 2002ko otsailaren 26ko Batzordearen 445/2002 Araudira egokitzeko eta, orobat, neurri batzuk Gipuzkoako nekazaritza ustiapenen baldintza zehaztutara moldatzeko.

## Nekazaritza ustiapenetan inbertitzeko laguntzak

2002. urtean egin diren inbertsioen zenbatekoak 17 milioi euroak gainditu ditu, eta ondorengo hauetarako erabili dira: nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpen instalazioak hobetzeko (%42), baserri etxeetan hobekuntzak egiteko (%15), makineria erosteko (%13), gaztandegi eta sagardotegiak moldatzeko (%11), baratzezaintza intentsiboko instalazio berrietarako (%7), landa-turismorako eta lurzatiaren etengabeko hobekuntzetarako (%5 hurrenez hurren) eta animaliak erosteko (%2).

Diru kopuru horren hartzaileak batez ere izan dira ogibidez nekazaritza eta abeltzaintza jardueran ez beste ezertan dihardutenak (%64), nekazaritzako elkarteak (%18), 18 eta 40 urte bitarteko nekazari gazteak (%11) eta dedikazio partzialeko titularrak (%7) izan dira. Laguntza horien %38 NBBEF BERMEAREN bitartez finantzatu dira.

## Nekazari gazteak ustiapen baten titular edo titularkide izateko laguntzak

Nekazari gazte bat nekazal ustiapen baten titular lehen-bizikoz egin dela hartzen da baldintza hauek betetzen direnean:

- Kudeaketaren erantzukizun zibil eta fiskala hartzen du, bai eta ustiapena osatzen duten ondasun eta eskubideena.

\_ Lehengo titularraren eta nekazari gaztearen artean zera hitzartu behar dute: titularrak, gutxienez %50ean parte hartuko du kudeaketa erantzukizunetan, ustiapenaren emaitza ekonomikoetan, kudeaketari atxikitako arriskueta eta bertan egin daitezkeen inbertsioetan.

\_ Titularrak nekazari gazteari gutxienez, bere ustiapena osatzen duten elementuetan, bere jabetzaren heren bat emango dio, horren erabilera eta aprobetxamendua barne.

2002. urtean zehar 8 gazte atxiki dira neurri honetara eta ia 331 mila euroko inbertsioa egin ondoren 146 mila euro baino gehiagoko diru laguntza jaso dute. Laguntza horren %50 NBBEF-bermeak finantzatu du.

## Mendiko nekazaritzako kalteordain konpentsagarriak

2000/79 Foru Dekretuko V. Kapituluan jasotzen da Gipuzkoan mendiko nekazaritzako kalteordain konpentsagarriak ematea. Laguntza horiek ondorengo helburu hauek dituzte:

\_ Nekazaritza lurren erabilera jarraitua ziurtatzea, horrela, landa komunitate bideragarri bat mantentzeko.

\_ Nekazaritza sistema eramangarriak mantentzea eta sustatzea, kontu berezia edukiz ingurumeneko eskakizunekin.

\_ Landa kontserbatuko dela eta nekazaritza lurra eta komunitateak mantenduko direla ziurtatzea.

\_ Nekazariari, ekoizpen txikiagoak eragiten duen errenta gutxitzea konpentsatzea.

2002. urtean zehar 1.003 nekazari jaso dute laguntza hori, 1,2 milioi euro baino gehiago jasoz. MNKKetan NBBEF Bermeak %40an parte hartzen du.

### Nekazaritza jarduera aurrez uzteko laguntzak

Neurri honen onuradun izan daitezke:

\_ 55 eta 65 urte bitarteko nekazaritza ustiapenetako titularrak, gutxienez aurreko 10 urteetan nagusiki nekazaritza jardueran aritu direnak eta Gizarte Segurantzari kotizatu diotenak, erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea lortuz, 65 urte betetzeko falta zaizkien urteei kotizatu dituzten urteak gehituz, 15era iristeko adina urtetan zehar.

\_ Langileak, gutxienez azken 5 urteak ustiapenean lanean eman dituztenak, ustiapenaren titularrekin batera uzten badute jarduera.

Bi kasuotan, merkataritza helburua duen edozein nekazaritza jarduera behin betiko uzteko konpromisoa hartu behar dute. Merkataritza helbururik gabeko nekazaritzan jarduten eta eraikinak erabiltzen jarraitu ahal izango dute. Hala ere, beren ustiapeneko nekazaritza azalera erabilgarria (4 hektarea gutxienez), eta ekoizpen kuotak, erreferentzia kopuruak, primen gaineko kupoak eta antzeko beste eskubide igorgarriak, bai eta emakida administratiboak, 50 urte baino gutxiagoko beste nekazari bati eskualdatu beharko dizkiote.

2002. urtean hiru titular eta langile bat heldu dira neurrira, 58 urteko batez besteko adinarekin. Igorri den nekazaritza azalera erabilgarria 13,98 hektareakoa da, eta jasoko duten hileroko pensioaren batez bestekoa 476 eurokoa da. NBBEF Bermeak %50ean laguntzen du.

### Ingurumenari eta nekazaritzari dagozkien laguntzak

Neurri hauek 2000/2006 Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Eramangarriako Planean jasota daude, eta zuzenduta daude ustiapeneta ingurunea eta baliabide naturalak zaintzeko eskakizunarekin eta naturaguneak eta paisaia mantentzeko eskakizunarekin bat datozen ekoizpen metodoak erabiltzeko konpromisoa hartzen duten nekazariari. Laguntzen helburua, ekoizpena murriztetik edo metodo berriak dakarren ekoizpenaren garestizetik eratorritako errenta-galera konpentsatzea eta gizarte osoari egiten dieten zerbitzuagatik saritzea da.

2002. urtean zehar, Departamentuak lau neurri xedatu ditu (galtzeko arriskuan dauden tokiko espezieen kontserbazioa, nekazaritza ekoizpen ekologikoa, tokiko babarrunaren landaketa eta mendiko larreak mantentzea), 107 hartzaile izan dituztenak, 187 mila euro baino gehiagoko laguntzekin eta NBBEF Bermearen %50eko finantzaketarekin.

### LANDA GARAPENERAKO MENDIKO NEKAZARITZA ELKARTEAK

2002. urtean zehar, Mendiko Nekazaritza Elkarteen bidez, gure Lurraldeko landa eremuen garapenari arreta berezia eskaini zaio.

Egin diren hobekuntzak ia 6 milioi euroko inbertsioa behar izan dute. Horietatik %69 azpiegituretan inbertitu da: %68 instalazio kolektiboetan, %12 ur hornidura sareko proiektu desberdinetan, %9 nekazaritza hondakinak kudeatzeko soluzioak gauzatzen, %7 erabilera kolektiborako makinaria erosten eta %4 bestelako neurrietan.

Inbertitu diren 6 milioi eurotatik, beste %17 landa garapeneko operazioetan inbertitu da, %12 merkaturatze neurrietan, %1 landa-ondarearen babesean eta beste %1 landako turismoan eta eskulangintzan.

Inbertsio horietaz gain, guztira ia 2 milioi eurora iristen diren diru laguntzak eman dira: %67 azpiegituretarako, %20 landa garapeneko eginbeharretarako, %11 merkaturatze neurrietarako eta %1 landa-ondarearen babeserako eta beste %1 landako turismo eta eskulangintzarako.

### LANDARE EKOIZPENEA

Landare ekoizpenaren alorrean, eta Aiako Laurgain Mintegitik, 4.294 sagardotarako sagar landare banatu dira, sagardo naturala egiteko gure baserrietan sagarrondo bariataterik egokienak landatzeko eta ondorioz, kontsumitzaileek ongi definitutako edaria, besteetatik bereiztua eta egiaztatutako kalitatekoa izan dezaten.

Ikuspegi horrekin, baita ere, Getariako Txakolinaren Batzorde Erregulatzailearekin elkarlanean aritu da Departamentua eta 30 hektarea mahasti landatu dira, Europako Batzordearen onespenerarekin (2001eko irailaren 18ko GAO).

### NEKAZARITZA SEKTOREAREN EGITURAKETA

Urte honetan, Departamentu honek gure Lurraldeko abeltzain eta nekazari profesionalen elkarteen duen elkarlanean ahalegina handitu egin da, gure nekazaritza sektore honen egituraketa sendotzea lortzeko helburuarekin.

a) Landare alorrean 6 elkarte sektorial gehitu dira proiektu honetara, 227 mila euroko diru laguntzarekin.

b) Abere alorrean hogeita 2 elkarte izan dira 1,2 milioi euroko laguntza izan dutenak.

Behi eta ardi aziendetan, aurrerakoien hazkuntza sustatzeko ondorengo zenbateko hauek inbertitu dira:

Esnetarako behietan	255.578,28 euro
Haragitarako behietan	92.856,00 euro
Ardietan	74.285,00 euro
Guztira	422.719,28 euro

Era berean, esne-zekorrek merkaturatzea (77 mila euro) eta labeldun eztiaren ekoizleak gehiago profesionalizatzea (12 mila euro) finantzatu da, guztira 90 mila euroko inbertsioarekin.

#### ESNETARAKO BEHIAREN AZPISEKTOREA

*Esnegintza borondatez uzteko programari* esker, zeina 2001 urtean Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren artean sustatua den, gure abel ustiapenen tamainak egokitzeko eta ekoizpen erreala ekoizle bakoitzaren kuotara egokitzeko helburuarekin, 94 abeltzain gipuzkoarrek behin betiko utzi zioten salmentarako esnea ekoizteari; neurri horri esker, 2002an, *Esne ekoizpena berresleitzeko programaren* bidez, 94 abeltzainek beren ekoizpen ahalmena 5 milioi litro esnetan handitzea ahalbidetu duen ekoizpen kuota askatu da.

Era berean, ustiapenaren tamaina eta kokalekua edozein delarik ere, Gipuzkoako ustiapen guztietako esnea jasotzen dela bermatzeko, Gurelesako Abeltzain Kooperatibari 240.000 euroko diru laguntza eman zaio.

#### ABEREEN OSASUNA

*Abereen osasunari* dagozkion neurriei erantzuteko ia 800.000 euroko inbertsioa egin da 2002an. Kopuru horretatik %97 praktika-rako izan da eta beste %3 abereak derrigorrez hiltzeagatiko kalte-ordainetarako. Era berean, behi eta ardi aziendan Entzefalopatia Espongiforme Kutsagarria (EEK) zaintzen eta kontrolatzen jarraitu

da. 2002an, horrek 961 mila euro baino gehiago suposatu du (%62 animalia hilak biltzen, garraiatzen eta deuseztatzen, %28 ikuskapenetan eta albatariaren ziurtagirietan, eta %10 animalien elikadura sistemen kontrolean).

Azkenik, gure ustiapenetako esne ekoizpena Europako Batasunak eskatzen dituen kalitate parametroetara iritsi dadin, *Behi Esnearen Higiene Kalitateko* kanpaina bat sustatu dugu. Kanpaina horretarako 112 mila euro baino gehiago erabili dira, %68 laguntza teknikoan eta hobekuntza programetan eta %32 higiene eta osasun kalitatea bermatzeko kontrolak egiten.

#### MENDI PARTIKULARRAK

*2000-2006 Landa Garapen Eramangarriko Planaren* barruan garrantzi berezia ematen zaio *Gipuzkoako Basoak Mantentzeko eta Hobetzeko Laguntzen Planari*. Plan hori 94.000 hektareako zuhaizti azalera okupatzen duten jabari partikularreko mendiei zuzenduta dago gehienbat. 2002an 2,3 milioi euro erabili dira 60 kilometro basobide artatzen eta hobetzen (egurrentzako aterabiedak hobetzen), 1.216 hektarea birlandatzen eta 8.500 hektareatan basoentzako tratamenduak ezartzen, guztira 6,2 milioi euroko inbertsiora iristen delarik.

Mendi pribatuen aprobetxamenduari dagokionez, guztira 837 baimen eman dira mozketa lanetarako. Horrekin 290.000m<sup>3</sup> egur atera dira, gutxi gorabehera 18 milioi euroko balioarekin.

#### HERRI MENDIAK

##### Gipuzkoako Foru Aldundiarenak

Aldundiaren 20 mendiek dituzten 6.800 hektareatan Departamentuak 90 hektarea birlandatu ditu, 550 hektareatan basoentzako tratamenduak egin ditu eta 12 kilometrotan bideak egin ditu, 950.000 euroko gastua eginez.

##### Udalenak

Herri onurakotzat hartuak diren 68 mendietan, 18.000 hektareako azalera, 160 hektarea birlandatu dira, 1.600 hektareatan basoentzako tratamenduak egin dira eta 60 kilometrotan bideak egin eta egokitu dira, 1,9 milioi euroko inbertsioa eginez.

Gainera, hegazkinez pinu-beldarraren aurkako tratamendua aplikatu da 9.000 hektarea pinuditan, 160.000 euroko inbertsioarekin.

#### NATURAGUNEAK ETA AISIALDIRAKO LEKUAK

Alor honetan Departamentuak Parke Natural izendatuta dauden naturaguneetan zaintza lanak egiten jarraitu du, Aralar, Aiako Harria eta Pagoetan, alegia, Honako lan hauek ditu, hain zuzen:

- \_ *Aiako Harriko Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketako Plan Gidaria 2001-2005* onartzea eta EHAAn argitaratzea.
- \_ Aiako Harriko Parke Naturaleko habitatak eta ondare kulturala biziberritzeko planak: 150.000 euro.
- \_ Pagoetako Parke Naturaleko azpiegiturak eta interpretazio gunea: 90.000 euro.
- \_ Enirio-Aralarko Partzuergoarekin hitzarmenak, artzaintzaren eta harreraren alorretan: 360.000 euro.
- \_ Gipuzkoan *Natura 2000* Sarea ikuskatzea eta zabaltzea.
- \_ Atsedeen eta aisialdirako lekuak mantentzea eta hobetzea: 150.000 euro.

#### Basa animaliak

Basa animaliak kudeatzeko helburuarekin gehien nabarmentzen diren jarduera ildoak hauek dira:

- \_ *Gipuzkoako ibaietan izokin atlantiarra sartzeko plana*. 1988an ekin zitzaion eta gaur egun Urumea, Oria eta Oiartzun ibaietan ari gara lanean: 22.000 euro.
- \_ *Zuhaitz igelaren Gipuzkoako kudeaketa plana*. Espeziea bere banaketa potentzialeko eremuan sartzeko lanetan jarraitzen dugu: 43.000 euro.
- \_ Gipuzkoako espezie zinegetikoko populazioen jarraipen eta kudeaketa lanak: 30.000 euro.
- \_ *Pagausoaren negupasa iberiar penintsulan aztertzen duen estudioa*: 15.000 euro.
- \_ Gipuzkoako bertako karramarro populazioaren jarraipena: 10.000 euro.
- \_ Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bidez, Arrano Etxeko Basa Animaliak Berreskuratze Gunearen kudeaketa: 30.000 euro.

\_ Ehiza, Arrantza eta Mendi Federazioekin elkarlanean, ingurunea zaintzeko eta kudeatzeko lanak: 15.000 euro.

#### GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN PLANA

2002ko abenduaren 17an onartu zuen behin betiko *Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren*, Planean adierazitako helburuekin bat etortzen den kudeaketa egitura bat sortzera xedatutako prozesu bat hasiera emanez. Egitura horrek gai honetan eskumena duten erakundeen arteko koordinazio egokia eta hartutako erabakien lurralde-koheretza bermatuko du.

#### Planaren oinarriak

Planaren helburua da hiri hondakin geroko kudeaketak ahalik eta kalitatez eta kosturik homogeneoenarekin eman diezaien zerbitzua Gipuzkoako lurralde historiko osoko herritarrei, ingurumenaren babesean ahalik eta mailarik handiena eskainiz, eta indarrean dagoen araudiaren eskakizunak nahiz garapen eramangarriaren printzipioak betetz. Horretarako, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren irtenbideak ezarriko dira, ingurumenaren ikuspuntutik eraginkorrek eta Gipuzkoako gizarte osoarentzat onargarriak. Plana hiri hondakinei buruzko estrategia eta araudi europarraren, estatalaren eta autonomikoaren eremuan eratzeko da, funtsezko bi oinarrietatik abiatuta:

- \_ Sortzen diren hondakinak ahalik eta gutxienera murriztea, prebentzio (murriztea eta berrerrabiltzea), kontzientziazio eta sentsibilizazio ekintzen bidez, herritar guztien eta eragile sozial eta ekonomiko nagusien partaidetza aktiboa bultzatuz.
- \_ Hondakinak baliabide gisa hartzea. Horretarako hondakin kudeaketa optimizatu behar da, gai birziklagarriak berreskuratuz eta duen energia aprobetxatuz (energia balioztatzea).

Premisa horiekin, *Hiri Hondakin Kudeaketa Orokorreko Sistema* diseinatu da. Bertan minimizazioa, berrerrabiltzea, birziklapena, konpostgintza, tratamendu mekaniko eta biologikoa, energia balioztatzea, eta azkenik, berreskuragarri eta balioztagarria ez den hondakinaren isurketa konbinatzen dira.

## Helburuak

Planak 3 helburu zehatz ditu:

- \_ 2016 urterako gaurko birziklapen tasa bikoiztea.
- \_ Hondakin biodegradagarrien konpostajea gehitzea, gaur egun konpostatzen diren kopuruak hamabost bider handituz.
- \_ 2006 urterako hondakin gordinen zero isurketa lortzea, eta azpiegitura bakar bat ere ez izatea hondakin guztien %65 baino gehiago kudeatzeko ahalmena izango duena.

Erakundeen partaidetza prozesu bizia egon da, hondakinen 8 mankomunitateetatik 7k proposatutako aukerak 3. alternatiba multzoan jasota zeudenen alde izan direlarik, Planaren barruko alternatiba multzo horrek, besteak beste, positiboki baloratutako ezaugarri hauek baititu:

- \_ Gainontzeko aukerek baino hondakin gordin eta bigarren mailako hondakin portzentaia handiagoa balioztatzen dute.
- \_ Bigarren mailako hondakin gutxiago isurtzen dute.
- \_ Hondakinaren manipulazio indize edo ratio txikiagoa dute.
- \_ Azpiegituretan inbertsio txikiagoak eskatzen dituzte.
- \_ Tratamendu kostu baxuagoak dituzte.
- \_ Proposatutako beste aukerek baino azalera txikiagoa okupatzen dute.
- \_ Bigarren mailako hondakin gutxiago isurtzeari eta hondakin gordinen zero isurketari esker, sistemaren itxiturako azpiegiturak gehiago iraun dezakete, hau da, Urteta, Lapatx eta Sasietako zabortegeien bitzta erabilgarria luzatzen da.

Horretaz guztiaz gain, azpimarragarria da 3. multzoko alternatibek Txingudi eta San Markos Mankomunitateek berek dituzten Plan Orokorretako xedapenak eta jarraibideak hartzen dituztela beren baitan.

Alderdi horiez gain, Planak derrigortzat hartzen du gardentasunean, informazioa eskuratzeko askatasunean eta herritarren partaidetzan oinarritutako konpromiso soziala hartzea. Konpromiso hori 2002ko azaroaren 29 eta 30ean egin zen Eztabaida Lantegi batean, Gipuzkoako hiri hondakinen etorkizunari buruzkoa, gauzatzen amaitu zen. Onartutako Planaren testuak aipatutako Lantegian parte hartu zuten gizarte, ekonomia eta erakunde eragileen ekarpen guztiak biltzen ditu.

## —| GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN SAREA

Europar Batasunetik eta Euskal Autonomia Erkidegotik mugikortasun eramangarria lortzeko helburuarekin –ingurumenean kalte gehien eragiten dituzten eta eragin ekonomiko handienak dituzten garraiobideak, bereziki automobila, garraio publikoagatik, oinez joateagatik edota bizikletagatik ordezkatzeari azken urteetan gauzatzen ari diren garraio eta hirigintza politiken eremuan idatzi da *Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarerako Plana*.

*Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarerako Planaren* idazketa uztailaren bukaeran amaitu zen, eta bere edukiak 2002ko irailaren 26an aurkeztu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Plan hau, konplexutasun handia duela eta partaidetza eragin nahi duela aintzat hartuta, udaletan eta eskualde-erakundeetan ere aurkeztu zen 2002ko abenduaren 5ean, ezagutzera emateko eta etorkizunean sortu nahi diren eztabaida eta lan foro iraunkorretan hasierako proposamen gisa erabiltzeko helburuarekin.